


Kontzertazioa 2026ko irailaren 28tik urriaren 27ra

ENERGIA ETA MATERIA ORGANIKOA BALIOZTATZEKO UNITATEA

CANOPIA BERRITZEN ARI DA

Proiektuaren funtsa



Informazioa jaso eta ekarpenak egin:
biltagarbi.com



Lurraldeko hondakin-estrategia: nork zer egiten du?

Bil Ta Garbi Sindikatu Mistoak Euskal Hirigune Elkargoaren eta Béarn des Gaves Herri Elkargoaren hondakinen tratamendua eta balorizazioa bermatzen du (guztira 211 herri). Urtero, 80.000 tona baino gehiago etxeko hondakin bildu eta tratatzen ditu.

Bil Ta Garbik zer egiten du?

Bil Ta Garbik Euskal Hirigune Elkargoak eta Béarn des Gaves Herri Elkargoak bildutako hondakinak tratatu eta balorizatzen ditu. Bi erakundeek herritarrei hurbileko zerbitzua antolatzen diete. Ondotik, Bil Ta Garbik dagokion tratamendu-sarera bideratzen du hondakin bakoitza: paperaren eta estalkien birziklapena, biohondakinen konpost bihurtzea, hondakin hondarren tratamendua edo, azken aukera gisa, lurperatzea, gainerako irtenbideak ezinezkoak direnean.

Murritztu, sailkatu, balorizatu: zein ordenatan?

Hondakinen kudeaketa tratamendu-moduen hierarkian oinarritzen da. Printzipio horrek hondakinen kudeaketarako estrategia osoa egituratzen du: hondakinak sortzea saihesteko ahal den guztia egitea, eta, saihestu ezin diren hondakinak ahalik eta gehien balorizatzea.



Bil Ta Garbi, prebentzioaren eta ekonomia zirkularraren zutabea: tratamendu-moduen hierarkian oinarritutako estrategia.

Sindikatuak hondakin mota bakoitza irtenbiderik egokienera bideratzen du, ondoko hierarkia segituz, elkarren osagarri diren 3 azpiegitura nagusiri esker.



- etxeko hondakin hondarrak tratatu eta balorizatzen ditu, estalkiak eta paperak sailkatzen ditu, eta energia (beroa, elektrizitatea eta biometanoa) nahiz bigarren mailako lehengaiak (PET gardenak, aluminioa, altzairuak, papera, kartoia...) ekoizten ditu.



- azken aukera gisa, hondakinak lurperatzen ditu.

Baiona

Senpere

Sarrikotapea



- biohondakinak balorizatzen ditu, konposta ekoizten du eta, azken aukera gisa, hondakinak lurperatuz tratatzen ditu.

Canopiak murrizketa, bereizketa eta gaikako bilketaren ondotik gelditzen diren hondakinak tratatzen ditu.

Zergatik modernizatu behar da Canopia?

Dagoeneko eredugarria den lurralde batean, Canopia, Energia eta Materia Organikoa Balorizatze Unitatea, modernizatzea aspalditik abian den ibilbide baten baitan kokatzen da: **hondakinen sortzea murriztea, bereizketa garatzea eta saihestu ezin diren hondakinak ahalik eta gehien balorizatzea, lurperatu beharrean.** Europako, Frantziako eta eskualdeko mailetan finkatutako hondakinen kudeaketa planifikatuaren helburuei, bereziki Ekonomia zirkularrerako xahuketaren aurkako AGEK legeari, erantzuten die erabat; lege horrek ekonomia zirkularra sustatzen du, bai eta lurperatzearen murrizketa ere. Logika horren baitan kokatzen da, jadanik dagoen azpiegitura egokituz, hondakin hondarren kudeaketa eraginkorragoa izan dadin.



Canopia bihar: zer azpiegitura publiko lurraldearentzat?

Canopia - Energia eta Materia Organikoa Balorizatzeako Unitatea (UVEOR) - modernizatzea ez da jadanik dagoen azpiegitura berritzeko obra hutsa. Etxeko hondakinak tratatzeko zerbitzu publikoaren bilakaera zabalago baten parte da, azpiegitura lurraldearen egungo eta etorkizuneko beharretara egokitzeke.

Deus ez egiteak ez du egoera bere horretan uztea erran nahi: zabortegeiekiko eta kontrolatu ezin diren irtenbideekiko mendekotasuna areagotuko luke, eta aztertutako alternatibek ez dute mendekotasun hori bermatzeko aukerarik ematen.



Hemen sortutakoa hemen tratatzea: denen erantzukizuna

Lurralde-erantzukizunari dagokion kontua da: hemen sortzen diren hondakinak hemen murriztu, bereizi, balorizatu eta tratatu behar dira, baldintza kontrolatu eta garde-netan.

Canopia modernizatzea erantzukizun hori guztion artean gure gain hartzea da: zabortegetan lurperatze gutiago, kanpoko irtenbideekiko mendekotasun gutiago, baliabideen tokiko balorizazio hobea eta zerbitzu publikoaren kostua menperatzea.

Orain arteko gunean bertan gauzatuko den modernizazioa

2013az geroztik, Canopiak lurraldeko hondakinak balorizatzen ditu: bereizketa, metanizazioa, energia-ekoizpena eta, orain arte, konpostatzea. Baina araubideak, ingurumen-helburuak eta lurraldearen beharrak aldatuz doaz: lurperatze gutiago, hondakinen balorizazio handiagoa, tokian tokiko energia-ekoizpen handiagoa eta kostu neurtuak. Horregatik, Bil Ta Garbik instalazioa modernizatzeari ekin dio, Baionako iparraldeko egungo kokalekuan bertan.

Lehentasunezko 3 helburu



Hondakinen balorizazioa optimizatzea, lurperatu beharreko azken hondakinen kopurua ahalik eta gehien murriztuz.



Energia-kontsumoa ahalik eta gehien murriztea eta energia-ekoizpena maximizatzea, hondakin hondarretatik abiatuz.



Eragiketa guztiak eta tratamendu-kostua menperatzea, etekin-kontratu publiko baten esparruan.

Canopia berritzea ez da hondakin gehiago tratatzea. Lurraldeko hondakin hondarrak hobeki tratatzea baizik, balorizazioa lehenesteko eta lurperatzea ahal bezainbat murrizteko.

Modernizazioaren datu nagusiak

Canopiako gunea: bizi-ingurune hobea



Gunearen handitzea:
%0
(4,25 ha – egungo azalera)



Konpost-ekoizpena
%100EAN
gelditzea,
horri lotutako usainen murrizketarekin



Kamioien joan-etorriak:
%67 GUTIAGO
(urtean 1.500 kamioi gutiago)

Energia gehiago lurraldearentzat: urtean 140 GWh ekoizteko aukera



10.400
ETXEBIZITZA
hiri-berokuntzako sarera lotuak
(83 GWh urtean)



Elektrizitatea
5.300
ETXETARAKO
(25 GWh urtean)



Gasa
3.600
ETXEBIZITZA berotzeko
(urtean 40 GWh biogas sarera injeztatua)

Etxebizitza bakoitzeko urtean 4.800 kWh-ko ohiko etxeko kontsumoan oinarrituz.

Lurraldean lurperatutako hondakin nabarmen gutiago



Urtero
20.000
ETA 25.000
TONA
errefus gutiago



Lurraldeko hondakinen
%90EKO
balorizazio-tasa

Hiri-berokuntzako sarera lotutako etxebizitzaren kopurua bikoiztea, prezio finkoarekin eta gorabehera geopolitikoen eraginik gabe.

Zeintzuk dira osagai teknikoak?

Dagoeneko lurraldearen zerbitzura dagoen Canopiak lurraldean sortzen diren etxeko hondakin guztiak jasotzen segituko du, sarrerako hondakin-toneladen kopurua handitu gabe. Proiektuaren erronka beste bat da: inguruko bizilagunen bizi-ingurunea errespetatuko duen industria-azpiegitura bat izatea, hondakinak ahal bezainbat balorizatzeko eta lekuko energia-trantsizioaren politiketan laguntzeko gai izanen dena.

Lau osagai tekniko, bereizketa, metanizazioa eta balorizazioa hobetzeko



Lehen osagaiak

Etxeko hondakin hondarren bereizketa modernizatzea du ardatz. Etxeko hondakin erresidualak nahasirik iristen dira Canopiara. Beraz, instalazioak oraindik balorizatu daitezkeen hondakinak bereizteko duen gaitasuna hobetzea da helburua: metalak, plastikoak, frakzio organikoak edo sare egoki batera bidera daitezkeen beste materia batzuk. Bereizketa eraginkorrago bati esker, errefusak murriztu eta hurrengo tratamendu-etapak hobeki prestatu ahal izanen dira.



Bigarren osagaiak

Metanizazio-prozesua optimizatzea du helburu. Metanizazioan, materia organikoa oxigenorik gabeko ontzi itxi eta hermetikoetan sartzen da, biogasa ekoizteko. Proiektuaren helburua prozesu hori nabarmen hobetzea da, eta horri lotutako energia-ekoizpena handitzea espero da. Erronka, etxeko hondakin hondarretan oraindik dauden hondakin organikoen potentziala hobeki baliatzea da.



Hirugarren osagaiak

Metanizazio bidez ekoiztutako biogasa araztea eta balorizatzea du helburu. Biogas gordina araztu egin behar da, errazago erabili ahal izateko. Araztu ondoren, biometano gisa balorizatu daiteke; adibidez, hiriko gas-sarean injeztatuz. Horri esker, egungo energia-errendimenduak nabarmen handitzen ahalko dira.



Laugarren osagaia

Birziklatu ezin diren eta arriskutsuak ez diren hondakinetatik **erregai solido berreskuratutakoak prestatzean** eta horretarako egokitutako berokuntza-instalazio batean beroa ekoiztean **oinarritzen da**.

Zerbitzu publikoak bultzatutako inbertsio teknikoa, epe luzera tratamendu-kostua menperatzeko.

Bertako energia gehiago lurraldearentzat

Beroa, elektrizitatea, biometanoa: Canopiak dagoeneko urtean 17 GWh inguru ekoizten ditu lurraldeko hondakinak erabiliz. Baionako elektrizitate-, gas- eta hiri-berokuntzako sareetatik hurbil dagoenez, **modernizazioaren helburu nagusietako bat ekoizpena zortzi aldiz handitzea da, urtean 140 GWh-ra irits daitezkeen ekoizpenarekin**, Ipar Euskal Herriko biztanleen mesedetan.

Hautu metodologiko bat: helburuak zehaztea, irtenbide teknikoa baino lehen

Irtenbide teknikoa oraindik ez da zehaztu, eta hori nahita egindako hautua da. 2026ko urtarrilean, Bil Ta Garbik Etekinaren Merkatu Publiko Globala abiarazi zuen: hasieratik irtenbide tekniko bat finkatu beharrean, prozedura horrek etekin-helburuak zehazten ditu eta hainbat hautagairekin elkarriketan aritzeko aukera ematen du, Canopia gunerako irtenbide teknikorik egokiena zein den aurkitzeko. Eragileekin elkarriketa-prozesua abian da, kontzertazioan jasotako ekarpenak azken eskaintzak aurkeztu aurretik kontuan hartu ahal izateko. Merkatua 2027ko bigarren hiruhilekoan esleitzea aurreikusten da.

Bil Ta Garbik ikuskatuko duena:



Etekin



Mantentze-lanak



Segurtasuna



Gardentasuna



Sartutako tonak



Ingurumen-jarraipena



Ustiapen-datuak



Balizko zigorrak



Energiaren erabilera

Azken eskaintzei esker, proiektuaren benetako zenbatekoa zehaztu ahal izanen da, hautatutako irtenbide teknikoen eta emaitza-engaiamenduen arabera.

Proiektuaren indarguneak eta arreta-puntuak

Canopiaren modernizazioak ondorio ekonomikoak ekarriko ditu (enplegua, eraikuntza eta herri-lanen sektorea, materien eta energiaren balorizazioa), baita karbono-aztarnaren hobekuntza ere, hautatutako industria-irtenbidearen eta hondakinen lurperatzearen murrizketaren arabera. Proiektu osoan zehar, identifikatu eta aurreikus daitezkeen balizko ondorioei etengabeko arreta eskainiko zaie (usainak, zarata, industria-arriskuak, paisaia txertatzea, airera eta uretara egindako isurketak, ingurune naturalak eta obren antolaketa). Alderdi horiei dagokienez, kontzertazioak zehaztuko ditu balizko eragileekin abian den elkarriketa lehiakorrean kontuan hartu beharreko arreta-puntuak.

Gehiago jakiteko: proiektuaren xehetasun guztiak kontsulta ditzakezu kontzertazio-dosierrean, www.biltagarbi.com webgunean.

Nola parte hartu kontzertazioan

2026ko irailaren 28tik urriaren 27ra, Bil Ta Garbi Sindikatuak Canopia - Energia eta Materia Organikoa Balorizatzeko Unitatea - berritzeko kontzertazio-prozesua abiatuko du.

Epe horretan, ekarpenak egin, galderak pausatu eta proiektuko eragileekin hitz egin eta iritzia partekatu ahal izanen duzu. Jasotako ekarpen guztiak aztertu eta kontzertazioaren amaieran argitaratuko den txostenean bilduko dira. Helburua, aurreikusitako ikerketak eta aterabide teknikoak aberastea da. Era berean, ekarpen horiek elkarriketa lehiakorrean parte hartuko duten balizko eragileekin landu beharreko arreta-puntuak zehaztuko dituzte.

Elkarriketarako hitzordu nagusiak

2 jendaurreko bilkura

- railaren 30ean, 18:00-20:00 - Albizia aretoan, Baionan
- Urriaren 9an, 18:00-20:00 - Larreko kultur gunean, Senperen



Zuzeneko emanaldia eta geroko ikus-entzunaldia Bil Ta Garbiren YouTube kanal ofizialean

Ate irekien 3 jardunaldi:

- Mendixka: urriaren 7an, 14:00-16:00, Sarrikotapea
- Canopia: urriaren 14an, 14:00-16:00, eta urriaren 24an, 9:00-12:00, Baiona

2 informazio-gune mugikor:

- Sainte Croix mediatekan, Baionan: irailaren 30ean, 8:30-12:30
- Leclerc merkataritza-gunean, Baiona iparraldean: urriaren 17an, 11:00-18:00

Nola parte hartu:

- Online: erregistro digitalaren bidez, www.biltagarbi.com webgunean
- Paperezko erregistroen bidez, 10 leku ofizialetan, herri-tarrei zabalik dauden orduetan:
 - » Bil Ta Garbi Sindikatu Mistoaren egoitzan, Baionan
 - » Euskal Hirigune Elkargoaren egoitzan
 - » Béarn des Gaves Herri Elkargoaren egoitzan
 - » Baiona, Bokale, Lehuntze, Mugerre, Hiriburu, Tarnose eta Saint Martin de Seignanx-eko Herriko etxeetan
- Hitzorduetan eta truke-saioetan

Kontzertazio-dosiera eta proiektuaren laburpena www.biltagarbi.com webgunean eta 10 leku ofizialetan kontsulta daitezke.

2 gaikako tailer, aurretiko izen-ematearekin

Lurraldeko erakunde sozioekonomiko eta elkarrekin ordezkarientzat soilik:

- Modernizazioaren erronkak eta helburuak: urriaren 1ean, 17:30-19:00
- Bizi-ingurunea eta proiektuaren integrazioa: urriaren 21ean, 17:30-19:00


Izena emateko:

concertation.canopia@biltagarbi.fr

1. tailerrarako: irailaren 24a aitzin

2. tailerrarako: urriaren 14a aitzin

213 herri zuzenean inplikatuak



Informazioa jaso eta ekarpenak egin, urriaren 27ra arte:
biltagarbi.com

